

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA

#### Zerbitzu-Unitatea: Lehenengo Sektorea

### 2025. urteko dolumin barikuko azokako postuen eta txosnen emakidak egiteko oinarri arautzaileak

#### 1. artikulua. Objektua

Oinarri arautzaile hauen xedea da oinarriak ezartzea Laudio udalerrian Dolumin Barikuaren kariaz eta erregularitasunez egiten den aldizkako azokan kategoria desberdinetako salerosgaiak saldu edota erakusgai jartzeko postuen adjudikazioa arautzeko. Zehazki, 2025eko apirilaren 11n izango da aurten ospakizuna.

2025eko Dolumin Barikuaren ospakizunen barruan egiten da Dolumin Barikuko azoka, inguruko nekazaritza- eta artisautza produktuen joritasuna eta dibertsitatea ezagutarazteko, eta, aldi berean, erdigunean jartzeko bertoko ekoizle, transformatzaile nahiz artisauak landa garapenerako zein Arabako natura-ingurunea babestu eta kontserbatzeko eginkizunean.

Ekonomia Sustatzeko Arloaren interesekoa da lehen sektorea eta, bereziki, 0 km produktuak sustatzea karbono-aztarna murrizteko, helburu horiek Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH 2030) jarduera-ildoekin uztartuta, NBEen duten erregulazioarekin bat etorriz. Halaber, ekimen horren bidez, udalerriko baserritarrei egiten duten lana ere aintzatetsi nahi zaie.

#### 2. artikulua. Merkatuaren kudeaketa

Laudioko Udalak antolatuko du Dolumin Barikuko azoka tradizionala, eta, halaber, Udalak kudeatuko du azoka, modu zuzenean.

#### 3. artikulua. Azokaren eguna eta ordua

2025eko apirilaren 11n izango da, de 9:00etatik 15:00etara.

#### 4. artikulua. Azokaren lekua

Dolumin Barikuko azoka Aldai plazan eta Herriko Plazan egingo da, Udalak adierazitako kokapenari jarraituz, eta, postuak hautatzeko, deialdi publikoa eginda. Bestalde, hautaketa horren ondoren ere, azoka ahal bezain ondo bideratzeko egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahalko ditu udalak, betiere, arrazoi justifikatua egonda.

#### 5. artikulua. Tasak

Salmenta-postuak eta txosnak baimentzeko, Udalaren herri jabariaren berariazko erabilera edo ustiapen eta baliatze bereziagatiko tasak arautzen dituen 8. ordenantza fiskalean ezarritako tasa ordaindu beharko da (2023ko abenduaren 20ko ALHAO, 147. zenbakia.), hau da, 2,80 euro saltzeko edo erakusteko postuak daukan metro lineal bakoitzeko.

Egokia denean, kontuan hartuko da I. eranskineko 4. epigrafean C kategoriako kasuetarako jaso dagoen salbuespena (seigarren artikuluan jorratzen da kategoria hori), hau da: tasa hori ordaintzetik salbuetsiak egongo dira espazio publikoak lagatzea irabazi-asmorik gabeko erakusketa, informazio-mahai, kirol-, gizarte- eta kultura-ekitaldiak eta abar egiteko denean.

Halaber, udalak doan hornituko ditu artisauek nahiz baserritarrek beraiek ekoiztiko bertoko elikagai edota artisautza produktuak saltzeko postuak.

**6. artikulua. Salmenta-postuen eta txosnen ezaugarri orokorrak**

a) Jarraian ageri diren kategorietan banatuta adjudikatuko ditu Laudioko Udalak produktua erakusgai edota salgai ipintzeko 90 postu, horiei dagozkien etxolen erabilera lagapenekin batera:

A kategoria: lehen mailako ekoizleak eta elikagai artisautza (50 postu).

B kategoria: artisautza (30 postu).

C kategoria: eragile soziokulturalak eta beste komunitate eragile batzuk. (5 postu).

D kategoria: lehentasunezko interesa duten beste erakunde edo pertsona ekoizle batzuk (5 postu).

Postuak 2 metro linealekoak (postu bakunak) edo 4 metro linealekoak (postu bikoitzak) izan daitezke, eta A, B eta D kategorietako eskatzaileek eskuratu ahal izango dituzte. Ezingo da postu bikoitzik eskuratu alde aurretik eskabidean esanbidez adierazi ez bada.

Jasoko diren eskaeren kopuruaren arabera izango da eskuratu ahal izango diren postu bikoitzen kopurua. Nolanahi ere, 15 postu bikoitz egongo dira, gutxienez.

b) Errokillak saltzeko 3 postu, 2 metro linealekoak, postu-lagapen barik.

c) Gehienez ere 24 metro lineal izango duten 3 txosna.

Udalak esanbidezko baimena eman ezean, erabat debekatua dago postuak bateratzea.

Laudioko Udalak adierazitako lekuan kokatuko dira etxolak zein txosnak. Eskalako plano batean jasoko dira kokapenak, etxola zein txosna guztien banaketa zenbakitua adierazita; etxola zein txosnei planoan emandako zenbakiak bat etorriko dira ondoren emango diren baimenekin.

Dagokion ebazpenean zehaztuko diren lekuetan kokatuko dira postuak eta txosnak, eta ezingo dira inola ere instalatu oinezkoen edota ibilgailuen zirkulazioa zailduko luketen lekuetan, ezta erabilera publikoko eraikinetarako sarbideetan, merkataritza establezimenduetan, horien erakusleihenetan, etxebizitzetarako erreserbatutako estratetan edo joan etorriak eragozteko moduko beste edozein lekutan ere. Dena dela, lehentasunezkoa izango da okupatutako bide publikotik oinezkoentzako sarbideak dituzten eraikinetako fatxadetaraino bi metroko tarte libreza uzteak.

Edozein kasutan, une oro libre egon beharko dira plaza bietako ebakuazio- eta irteera eremuak. Halaber, une oro bete beharko dira udaltzainen jarraibideak, baita gainerako udal-lan-gileenak ere, aipatutako eremuetan sartu edota irteteko eragozpenik ez dagoela ziurtatzeko.

Dagokion ebazpenean ezarriko diren baldintza guztiak bete beharko dituzte postuak edota txosnak instalatzeko baimenen titularrek.

Instalazioetan ez da inolako publizitaterik egingo, ez bada merkaturatzen diren produktuei buruzkoa.

Eguneko merkataritza-jarduera amaitzean, saltzaileek garbitasun-egoera onean utzi beharko dituzte postuen kokalekuak eta ingurua.

**7. artikulua. Erabilera-lagapena duten etxolen ezaugarri espezifikoak**

A kategoria: lehen sektoreko ekoizpena (50 postu).

Lehen sektoreko ekoizletzat hartuko dira nekazaritza-edota abeltzaintza ekoizpenean diharduten pertsona fisiko edo juridikoak, betiere, nekazaritza ustiategi baten titularrak badira eta Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan (NUE), Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean (NEEO) edota Abeltzaintzako Ustiategiaren Erregistro Orokorrean (AUEO) inskribatuak badaude, merkaturatutako produktu motaren arabera.

Halaber, kategoria honetan daude:

- Nekazaritza-elikagaien kooperatibetako nahiz ekoizle taldeetako kideak edo enplegatuak, baldin eta partaide gehienak nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategien titularrak badira.
- Manipulatutako edo transformatutako elikagaien ekoizleak, baldin eta lehengaiak euren ustiategitik lortzen badituzte nagusiki.
- Salgai dituzten produktuak elikagai-artisautza gisa identifikatzen dituen kalitate-bereizgarriren bat dutela egiazta dezaketen artisauak, esaterako, bereizgarri hauek: Artisau Elikagaigintza, Baserriko Artisau Produktuak eta antzekoak.

Lehen sektoreko ekoizle direla egiaztatzen duten eskatzaileek beren ustiategitik etorritako lehengaiak ekoiztutako produktuak baino ezingo dituzte saldu, eta, beraz, esanbidez debekatua dago produktuak birsaltzea.

Zuzeneko antolatzaile den heinean, Ekonomia Sustatzeko Arloak aurreko kategorietako kide izan ez arren azokarako lehentasunezko interesekoak diren pertsona edo erakunde ekoizle eskatzaileak barne hartu ahalko ditu, ekoizpenaren ezaugarri bereziengatik.

B kategoria: artisautza (30 postu).

Eskulangintzat hartzen dira manufaktura-sistema berezien bidez elikagaiak ez diren produktuak sortu, ekoiztu edota eraldatzea xede duten enpresa-jarduerak, baita ondasunak edota objektuak zaharberritzea xede dutenak ere. Manufaktura-sistema berezi horien oinarria teknika tradizionalak ezagutu eta menderatzean datza, lehengaien hautatze eta tratatze prozedurei edota horien konbinazioaren zentzu estetikoari dagokienez, eta esku-hartze pertsonala erabakigarria da elaborazio- eta akabera prozesua kontrolatzeko.

Hortaz, artisautzat hartuko dira edozein lurralde historikotako Artisau Lanbideen Erreperorioan jaso dagoen artisau-jarduera bat edo batzuk egiten dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, betiere, egiaztatu egin badezakete euren artisau izaera aitortzeko baldintzak betetzen dituztela.

Zuzeneko antolatzailea izaki, Ekonomia Sustatzeko Arloak lehenago aipatutako kategorietan sartzen ez diren baina eskatzaile diren artisau-erakundeak edo pertsonak sartu ahalko ditu, baldin eta euren ekoizpenaren ezaugarri bereizgarriengatik azokarako lehentasunezko interesa badute.

C kategoria: eragile soziokulturalak eta beste eragile komunitario batzuk (5 postu).

Udalak 5 salmenta-postu edukiko ditu azokaren esparruaren barruan gizarte-ekimenak edo antzekoak bideratzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.

D kategoria: lehentasunezko interesa duten beste eragile edo pertsona ekoizleak (5 postu).

Kategoria honen barruan egon ahalko dira aurreko kategorietan ezarritako onargarritasun-baldintzak bete gabe ere, babestu beharreko ezaugarriren bat izateagatik interes berezikoak diren pertsonak edo erakundeak, besteak beste, honako hauek:

- Ekoizpen erabat berria.
- Desagertzeko arriskuan dagoen ekoizpena.
- Azoka ekologikoan edo bertoko azokan ikuspegi berriak zabaltzen dituzten ekoizpenak.

Eskaintzen diren postu eta txosnen kopurua baino eskaera gutxiago egoteagatik ezin bada bete kasuan kasuko kategoriarako postuen gehieneko kopurua, soberako postuak beste kategoria bateko eskatzaileei adjudikatu ahalko zaizkie.

Kategoriaren jakin batean sartzeko baldintzak betetzen ez badira, baina oinarri hauetan jasotako beste kategoria batean sartzeko baldintzak bai, eskaerak aztertzeko aldian, aurkeztutzat joko da onargarritasun-baldintzak betetzen diren kategoriako postu bat eskuratzeko eskaera.

**8. artikulua. Salerosgaietz, oro har, eta elikagaietz, zehazki**

a) Ez da inolako produkturik saltzeko baimenik emango baldin eta aplikatzekoak diren lege-edota erregelamendu-xedapenen aurkakoa bada. Halaber, saltzeko baimena mugatu ahalko da kontsumitzaile edota erabiltzaileen higie-nearekin, osasun publiko-arekin edo segurtasun-arekin lotutako arrazoiak direla medio.

b) Honako produktu hauek baino ezingo dira merkaturatu: okela, hegazti eta ehizaki fresko, hoztu nahiz izoztuak, arrain eta itsaski fresko, hoztu nahiz izoztuak, esne pasteurizatua, gazta freskoak, gaztanbera, esne-gaina, gurina, jogurta eta bestelako esneki freskoak, pastel eta opil barrubeteak edo garnizioz hornituak, elikadura-pasta freskoak nahiz barrubeteak, antxoa ke-tuak eta bestelako erdikontserbak, baita agintari eskudunek egokitzat jotzen dituzten eta euren ezaugarri bereziengatik nolabaiteko osasun-arriskua dakarten beste produktu batzuk ere, be-tiere, osasun-agintaritza eskudunen irizpideen arabera hozteko behar diren instalazio egokiak badaude eta behar bezala ontziratuta kontserbatzen direnean.

c) Produktuen etiketak egokiak izango dira, kasuan kasu indarrean dagoen araudiaren ara-bera. Ez da inola ere onartuko iraungitze-data gauditua duen edo kontserbazio-egoera txarrean dagoen produkturik.

d) Salmenta-produktuekin kontaktuan dauden langileek garbiketa- eta segurtasun-neurririk zorrotzenak beteko dituzte une oro.

e) Eskaeran adierazitako eta behar bezala baimendutako produktuak baino ezingo dira mer-katuratu, eta, beraz, pertsona saltzaileek ezingo dute beste produkturik merkaturatu.

f) Produktu mota bat baino gehiago saltzen dituzten postuak onartu daitezke.

g) Postuko titularrek erraz ikusteko moduko lekuan ipiniko dituzte udal-baimenak.

h) Pisatu edo neurtu beharreko produktuak saltzen dituzten postuek arauzko baskulak edota metroak behar dituzte.

i) Hotz-kateari eten gabe eutsi behar dioten eta erakuste-lekuan hotza behar duten saleros-gaiak saltzeko, higie-ne- eta osasun-araudia betetzeko bitarteko guztiak dituztela egiaztatu be-harko dute eskatzaileek. Udalari elektrizitate-harguneak erabiltzeko baimena eskatu ahalko zaio, baina baldintzek ahalbidetzen dutenean baino ez da emango.

Nolanahi ere, udalak ezin du bermatu elektrizitate harguneetarako sarbidea eman ahalko duenik produktuak erakusgai edo salgai ipintzeko beharrezko baldintza den kasuetan. Ondorioz, baztertu egingo dira argindar-hornidura beraien baliabideekin bermatu ezin duten eta udal-har-guneak ere erabili ezin dituzten eskaera guztiak.

j) Bereziki, elikagaiak eta edariak saltzen dituzten instalazio eta postuek merkaturatzen dituz-ten produktuen nahiz instalazioen erregelamendu espezifikoe-tan ezarritako higie-ne, osasun-eta bestelako baldintzak bete beharko dituzte, baita osasun- eta merkataritza-araudi bereziak zorrotz bete ere.

k) Salerosgaiak ezingo dira inola ere lur-rean jarri, loreak edo esanbidez baimendutako pro-duk-tuak salbu.

**9. artikulua. Txosnak instalatzeko baldintza bereziez**

Gehienez ere, edari autoktonoak eta taloak saltzeko 24na metro koadroko hiru txosna ins-talatuko dira Aldai plazan eta Herriko Plazan banatuta.

Txosnek segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte, teknikari eskudunak emandako segur-tasun- eta muntaketa-ziurtagiriaren bidez egiaztatuta.

Ondo aireztatutako leku batean ipiniko dira butano suk-aldea duten instalazioak, eta botilen eta edozein su-fokuren arteko distantzia 1,5 metroz gorakoa izan beharko da.

Nolanahi ere, sua erabiltzen duten instalazioetan, gutxienez, 21A 113B eraginkortasuna du-ten ABC hautsezko bi itzalgailu egon beharko dira. Ez dira inola ere onartuko berrikuspen-data epez kanpo duten su-itzalgailuak, ezta 20 urtez gorako su-itzalgailuak ere.

**10. artikulua. Pertsona, enpresa edo erakundeek eskatzaile izateko bete behar dituzten baldintza orokorrak**

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
  - b) Saltzaileak alta emanda izatea ekonomia-jardueren gaineko zergari dagozkion epigrafeetan, hala badagokio.
  - c) Pertsona merkatariak dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda izatea. Halaber, baldintza hori bete beharko dute baimena titularraren izenean eskatua duten pertsonak (pertsona fisikoak badira) nahiz baimena erabiliko duten langileek eta bazkideek (pertsona juridikoak badira).
  - d) Ekonomia-jardueraren arriskuak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.
  - e) Saldu beharreko produktua edo produktuak arautzen dituen araudian ezarritako osasun-arauak eta baldintzak betetzea, hala produktuei, nola instalazioei dagokienez. Horiek horrela, nahitaezkoa izango da merkaturatu beharreko produktu motaren arabera egoki diren erregistro ofizial guztietan inskribatua egotea.
  - f) Behar bezala egiaztatzea aurkeztu den kategoriakoa izateko baldintzak betetzen direla.
  - g) Kontsumitzaileen edota erabiltzaileen erreklamazioak jaso eta horiei erantzuteko helbide bat zehaztu eta mantendu beharko da. Eskabidean besterik adierazten ez bada, interesdunak eskabidean adierazi duen helbide hori bera erabili behar dela ulertuko da.
- Aukeratu den kategoriaren eta merkaturatu beharreko produktu motaren arabekoak izango dira baldintza espezifikoak.

Udal-baimena pertsonala eta besterenezina izango da, udalerrian kalez kaleko salmenta arautzen duen udal ordenantzan xedatutakoa gorabehera. Nolanahi ere, baimenaren titularrak ez den partikular batek baimena eraginkorki erabili ahal izateko, Udalaren esanbidezko ezagutza eta baimena behar dira, eta, beraz, une oro eskatu ahal da dagokion identifikazioa.

**11. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

- a) Oinarri hauek ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko 10 egun baliioduneko epea. Berariaz prestatutako eredu normalizatua erabilia aurkeztu beharko dira Dolumin Barikuko azokan postua edo txosna ipintzeko eskabideak.
- b) Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Laudioko udaletxeko erregistro orokorrean) edo telematikoki, Udalaren egoitza elektronikoa erabilia aurkeztu ahal dira eskaerak. Eskaerak nahitaez telematikoki aurkeztu beharko dituzte urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 14. artikuluan adierazitako erakunde guztiek.
- c) Deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte pertsona edo erakunde eskatzaileek.
- d) Eskabideekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:
  - Salmenta-postu bat ipintzeko interesa duten pertsona orok:
    - Postuaren titulartasuna izatea eskatzen duen pertsonaren NAN, IFZ edo baliokidea, baita postuan salmenta ibiltarian aritzeko baimendu nahi diren pertsonena ere.
    - EJZko alta.
    - Postuaren eskatzaileak ordaindutako Gizarte Segurantzaren azken ordainagiria, baita titularrak gain postuan salmenta ibiltarian aritzeko baimendu nahi diren gainerako pertsonena ere.
    - Erantzukizun zibileko aseguruia eta azken ordainagiria.

Pertsona artisauek:

Artisau-karneta edo artisau-izaera berresteko dokumentazio baliokidea.

Pertsona ekoizleek:

– NUEko edo NEEOk alta, kasuan kasu, lehen sektoreko ekoizpena postuaren eskatzailearen izenean egiten dela egiaztatzeko.

– Elikagai-manipulatzailearen txartela.

– Saltzeko baimentzea eskatu diren produktuak saltzeko indarrean dagoen legeria betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala dagokionean. (Osasun-erregistroa).

Prestaturiko elikagaiak saltzeko:

– Osasun-erregistroa.

– Saltzeko baimentzea eskatu diren produktuak saltzeko indarrean dagoen legeria betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala dagokionean.

Txosnak instalatzeko:

– Teknikari eskudunak emandako segurtasun- eta muntaketa-ziurtagiria (instalatzen den egun berean aurkeztu ahal da), eskaera inprimaki normalizatuan jasotako araudi aplikagarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena egin ostean.

– Suarekiko erreakzio-mailaren ziurtagiria edo baliokidea.

Laudioko bertoko ekoizleen aldizkako azokan dauden eta, beraz, indarrean dagoen udal-baimena duten eskatzaileek ez dute udal honen esku dagoen akreditazio-dokumentaziorik aurkeztu behar, nahikoa izango da postu baten emakida jasotzeko eskabidea aurkeztea. Salmenta-produktu berriak saltzeko baimena eskatzen denean baino ez da aurkeztu behar dokumentazio berria.

Titular bakoitzeko eskaera bakarra egin daiteke. Titular berak eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, udal erregistroan lehenengo aldiz aurkeztutakoa baino ez da kontuan hartuko.

## 12. artikulua. Eskaerak zuzentzea

Eskaeran edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badaude, 10 egun baliouduneko epea emango zaie erakunde nahiz pertsona interesdunei antzemandako akatsok zuzendu edota dokumentazioa osatzeko; epe hori igarotakoan beharrezko zuzenketak edota osaketak egin ezean, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, betiere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 21. artikuluan xedatutako moduan ebazpena eman ostean.

## 13. artikulua. Adjudikazio-irizpideak

Oinarri hauek betetzen dituen eskaera orok salmentarako eskubidea izango du baldin eta postuak eskuragarri badaude. Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide onartuen zerrenda jarraian ageri diren irizpideak aplikatuta lortzen dituzten puntuen arabera ordenatuko da, puntuazio handienetik txikienera (gehienez 8 puntu):

A) PRODUKTUEN JATORRIA: 5 puntu, gehienez.

5. puntu: produktu gehienak Audio udalerrian ustiatzea edo, hala badagokio, egitea.

4 puntu: produktu gehienak Aiaraldeko beste udalerrri batzuetan ustiatzea edo, hala badagokio, egitea. Aiaraldea da Audio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo udalerriek definitutako lurralde-esparrua.

3 puntu: produktu gehienak Arabako beste udalerrri batzuetan ustiatzea edo, hala badagokio, egitea.

2 puntu: produktu gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batzuetan ustiatzea edo, hala badagokio, egitea.

1 puntu: produktu gehienak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko udalerrietan ustiatzea edo, hala badagokio, egitea.

Artisautza- eta erroskilla-postuen kasuan, ulertuko da produktu gehienak ekonomia-jardueren gaineko zergaren zentsu-aitorpenean xedatutakoaren arabera ekoizten direla.

B) **BESTE IRIZPIDE BATZUK:** 3 puntu, gehienez.

Puntu 1 egoitza nagusia Laudion duen tokiko ekoizleen elkarte bateko kide izateagatik.

Puntu 1 interesduna Laudio udalerrian erroldatuta dagoenean, nahiz eta ekoizpen lekua udalerritik kanpo egon.

Puntu 1 Laudio osteguneko aldizkako azokaren batean adjudikazioduna izateagatik.

Eskatutako baldintzak betetzen dituzten txosna onartuen eskabideen zerrenda puntuazio handienetik txikienera ordenatuko da, honako irizpide hauek aplikatuta lortzen dituzten puntuen arabera (gehienez, 3 puntu):

Puntu 1 eskatzailea nekazaritza- edota abeltzaintza ustiategi baten jabe baldin bada.

Puntu 1 eskatzailea Laudion erroldatua badago.

Puntu 1 zentsu-aitorpenaren arabera jarduera Laudion egiten denean.

#### **14. artikulua. Eskaerak aztertzeko eta postuak adjudikatzeko prozedura**

Salmenta-postuetarako eta txosnetarako eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, aztertu egingo dira. Deialdiko baldintzak betetzen direla egiaztatu eta eskabideak ebaluatu ondoren, behin-behineko zerrenda bat argitaratuko da, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, handienetik txikienera, eta alegazioak aurkezteko epea irekiko da. Epe hori igarotakoan alegaziorik aurkeztu ez bada, edo aurkeztu badira, alegaziook aztertu ondoren, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda argitaratuko da, lortutako puntuazioaren arabera, handienetik txikienera ordenatuta.

Udal honek lehenetsitako kokapenen artean erroskillak saltzeko postuak eta C kategoriako postuak instalatzeko eskabideen kasuan, onartutako eskabideen zerrenda argitaratuko da, eta zozketa postuak aukeratzeko egun berean egingo da.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 45.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, deialditik eratorzen diren argitalpen guztiak Udalaren webgunean (<https://www.laudio.eus/eu>) kontsultatu ahal izango dira es. Interesdunak eskabidearen erregistro-zenbakiaren bidez identifikatuko dira.

Lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako eskabide onartuen zerrendan, salmenta-postu baten adjudikazioa lortu nahi duten interesdunak ere adieraziko dira.

Kategoria bakoitzerako gehieneko eskaera kopurura iritsi ezean, oinarriotako 7. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da.

Gainerako eskabideak, onartuak izan arren salmenta-postu bat adjudikazioa jasotzeko aukerarik kanpo geratzen badira, itxaronzerrenda batera igaroko dira.

Lortutako puntuazioetan berdinketarik izanez gero, zozketa publikoa egingo da, postua lortu nahi duten adjudikaziodunen behin betiko ordena lortu arte. Hurrenkera horrek hautaketa egiteko ordena baldintzatuko du. Postuak hautatzen diren egun berean egingo da zozketa, hautaketa egin aurretik.

Postuak nahiz txosnak hautatzeko ekitaldia 2025eko apirilaren 7an izango da, 12:00etan, Laudioko Udaletxeko osoko bilkuren aretoan (1. solairua). Behin betiko zerrendaren arabera ordenari jarraituz eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera esleituko dira postu zenbakiak.

Postuak hautatzeko ekitaldira bertaratu ezin diren adjudikaziodunei aukera emango zaie deialdia egin baino 5 egun lehenago Udalari 2. eranskina aurkezteko, lehentasunaren arabera hurrenkeran osatutako postu-zerrendarekin batera. Horiek horrela, dei egiten zaion unean hutsik dagoen lehenengo postua esleituko zaio.

Postuak hautatzeko prozesua amaitzean adjudikazioduna ez bada presentzialki bertaratu eta 2. eranskina ere aurkeztu ez badu, zozketa egin beharko da, adjudikazio hurrenkeran. Hutsik geratu diren postuetako bat adjudikatuko zaio.

Postuak hautatzen diren bitartean, eta pertsona eskatzaileek postu bikoitza eskuratzeko aukera badute, adjudikazio-hurrenkeran hautatuko dira, harik eta Udalak aurrez zehaztutako postu bikoitzen gehieneko kopurura iritsi arte, eta, betiere, oinarri hauen 6. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

15 adjudikaziodun baino gutxiagok postu bikoitza aukeratzen badute, 2 metro linealeko postu bakun gisa esleitu ahalko dira. Orduan, adjudikatu gabe geratu direnak adjudikatuko dira, itxaronzerrendan geratu direnen hurrenkera zorrozki gordeta.

Postuak hautatu aurreko behin betiko ebazpenean zehaztuko da azkenean aukeratu ahal izango diren 4 metro linealeko postu bikoitzen kopurua. Oinarri hauetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, jasotako eskabide kopuruaren menpe egongo da kopuru hori.

Hori guztia jasotzeko, ebazpena emango da, salmenta ibiltaria arautzen duen udal ordenantzaren 173.b) artikuluan xedatutakoaren arabera (2021eko martxoaren 31ko ALHAO, 36. zk.).

Udalaren webgunean, iragarki-taulan nahiz Udalaren iragarkien erakusleihoan argitaratuko da adjudikaziodunen eta adjudikatu zaizkien postuen zerrenda, kasuan kasuko eskaerari sarrera erregistroan emandako zenbakia bakarrik adierazita.

Postuak adjudikatzeko ebazpenaren erabakiaren aurka Legean adierazitako alegazio-araubidea baliatu ahalko da.

#### **15. artikulua. Kontrola eta egiaztapena**

Laudioko Udalak edo haren eskuordetza hartzen duen erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol ekintzak egin ahalko ditu lizentzien objektu diren postuak behar bezala erabiltzen direla eta horietan baimendutako jarduera modu egokian bideratzen dela bermatzeko, ebazpenean, aplikatu beharreko udal-ordenantzetan nahiz kasuan kasuko jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako lege eta arauetan aurreikusitako helburuak betetze aldera.

#### **16. artikulua. Balizko aldaketak**

Oinarriok aldatu egin ahalko dira eta egintza ezeztatu ere egin ahalko da, Laudioko Udalak unean unean har ditzakeen neurrien arabera. Parte hartzen duten pertsonak nahitaez bete beharko dituzte aplika litezkeen aldaketak edo arauak, horrek kalte ordainak jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

Halaber, une oro bete beharko da Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu Zentralak emandako araudia, baita azoka nahiz kultura ekitaldietarako aplikagarri diren baldintzak ere, bereziki, jatetxeen arloko zerbitzuei dagozkienak.

Txosnek eskaintzen dituzten sukaldaritza zerbitzuen berezitasunak kontuan hartuta, nahitaez bete beharreko neurri zehatzak xedatu ahalko ditu udalak.

Azokan parte hartzeko eskaera aurkezteak berez dakar klausula hauek eta aurrerantzean ezar litezkeen baldintzak esanbidez onartzea.



**17. artikulua. Zehapen-araubidea**

Gainerako ez-betetze edota arau-hausteei dagokienez, Laudio udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen udal-ordenantzan xedatutakoa aplikatu beharko da.

Laudio, 2025eko otsailaren 14a

*Alkatearen-udalburua*

*AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ*



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P0103800I

I. ERANSKINA  
ANEXO I

SALPOSTUA EDUKITZEKO ESKAERA

SOLICITUD DE PUESTO

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD			
<b>1. abizena/ 1. Apellido</b>	<b>2. abizena/ 2. apellido</b>	<b>Izena/ Nombre</b>	<b>NAN/AIZ/Pasaportea DNI/NIE/PASAPORTE</b>
<b>Interesduna naiz / Soy la persona interesada:</b>			
<b>Ordezkatzen dudana pertsona / Represento a:</b>			
<b>Ordezkatuaren NAN, AIZ, pasaportea edo IFZ</b> <i>DNI, NIE, pasaporte o NIF de la persona representada</i>			

- **Salpostu hau eskatzen dut/ Solicito el siguiente tipo de puesto**
  - Artisautza-postua/Puesto de artesanía**
  - Elikagaiak saltzeko postua/Venta de productos de alimentación**
  - Txosna/Txosna**
  - Erroskila-postua/Puesto de rosquillas**
  - Erakunde soziokulturala/Organización sociocultural**
  - Eskola/Colegio**
- **Artisautza eta elikagaiak saltzeko postuaren eskaria egin baduzu / Si has solicitado un puesto de artesanía o de venta de productos de alimentación**
  - Postu bakarra/Puesto único**
  - Postu bikoitza/Puesto doble**

**OHARRA: postu bikoitza espresuki eskatu ezean, postu bakarra eskatu dela ulertuko da / NOTA:**  
se entenderá que se solicita un puesto único en el caso de no hacer mención expresa de querer un puesto doble

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P0103800I

#### A. HARREMANETARAKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO

HARREMANETARAKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO			
Helbidea / Dirección	P.K. / C.P.	Udalerría Municipio	Telefono zk. Nº de teléfono
			E-posta / E-mail

Adierazi zein pertsonarentzat eskatzen duzun baimena azokaren egunean saltzeko/ Indique las personas para las que pide autorización para vender el día del mercado.

PERTSONA BAIMENDUAK / PERSONAS AUTORIZADAS*			
Izena Nombre		NAN/AIZ/Pasaporte DNI/NIE/PASAPORTE	
Izena Nombre		NAN/AIZ/Pasaporte DNI/NIE/PASAPORTE	
Izena Nombre		NAN/AIZ/Pasaporte DNI/NIE/PASAPORTE	

*\* 10. artikulua: udal-baimena pertsonala eta besterenezina izango da, baina ezkontideak edo seme-alabek erabili ahal izango dute, baita titularraren enplegatuek ere, guztiek alta behar bezala emanda badute Gizarte Segurantzán; hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da, beraz / La autorización municipal será personal e intransferible pudiendo hacer uso de ella las personas debidamente autorizadas por este ayuntamiento.*

#### B. JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES

Hizkuntza / Idioma	
<input type="checkbox"/> Euskaraz	<input type="checkbox"/> En Castellano

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

Komunikazio-kanala / Medio (39/2015 Legearen arabera / según Ley 39/2015)	
Eletronikoa (ziurtagiri digitala behar da) Electrónicamente (requiere certificado digital)	Posta arruntaz Correo ordinario
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)*	

\* **Egoitza elektronikoa jakinarazpen bat duzula jakinarazteko erabiliko da helbide elektronikoa, ez da erabiliko komunikazio zuzenarako** / El e-mail sirve para avisar de la existencia de notificaciones en la sede electrónica, no se usará este medio para realizar la comunicación directamente

#### C. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Laudion salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzarekin nahiz gainerako lege aplikagarriekin bat, salmenta ibiltarian aritzeko baimen-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen hau egiten dut:

Al objeto de acompañar la solicitud de autorización para el ejercicio de la venta ambulante, de conformidad con la Ordenanza Reguladora de Venta Ambulante del Ayuntamiento de Llodio, así como, el resto de legislación de aplicación realiza la siguiente,

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA	DECLARACIÓN RESPONSABLE
<b>LEHENENGOA.</b> Bete egiten ditut Laudion salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzan xedatutako betekizunak betetzen ditut, bai eta emakida arautzen duten oinarriek eskatutakoa ere.	<b>PRIMERO.</b> Cumpló los requisitos establecidos para el ejercicio de la venta ambulante conforme a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de Venta ambulante de Llodio. Así como lo exigido por las Bases que rigen la concesión.
<b>BIGARRENA.</b> Badaukat aipatutako baldintzak betetzen ditudala egiaztatzeko dokumentazioa.	<b>SEGUNDO.</b> Estoy en posesión de la documentación que acredita el cumplimiento de los anteriores requisitos.
<b>HIRUGARRENA.</b> Hitz ematen dut baimena indarrean dagoen bitartean baldintzak betetzen jarraituko dudala, eta Udalari jakinaraziko diodala baldintza horietan jazo litekeen aldaketa oro.	<b>TERCERO.</b> Me comprometo a mantener el cumplimiento de los requisitos durante el plazo de vigencia de la autorización y comunicar a este ayuntamiento cualquier cambio que se produzca en ellos.
<b>LAUGARRENA.</b> Ziurtatu egiten dut jarduera ekonomikoen gaineko zergaren barruan dagokidan epigrafean alta emanda dudala, eta horren kuota-ordainketak egunean ditudala, edo, salbuetsia	<b>CUARTO.</b> Certifico estar dado de alta en el epígrafe correspondiente del impuesto de actividades económicas y al corriente en el pago de la tarifa o, en el caso de estar exentos, estar dado de alta en el

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P0103800I

egonez gero, zergapekoen erroldan alta emana dudala.	censo de obligados tributarios.
<b>BOSGARRENA.</b> Ni, salmenta ibiltarian aritzeko postuaren adjudikazioduna naizen aldetik, nahiz postuan egoteko baimendu ditudan pertsonak alta emana dugu Gizarte Segurantzian dagokion araubidean, eta egunean dauzkagu horren kuotak. Baimenaren indarraldi osoan hala izateko berariazko konpromisoa ere hartzen dut.	<b>QUINTO.</b> Tanto yo, como persona adjudicataria del puesto de venta ambulante, como los autorizados de este estamos de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda y al corriente de pago de sus cuotas. Con compromiso expreso de que así sea durante todo el periodo de vigencia de la autorización.
<b>SEIGARRENA.</b> Ziurtatu egiten dut egoitzabaimenen arloan ezarritako betebeharrak betetzen ditudala, baita lan-baimenen arlokoak ere, hala badagokio.	<b>SEXTO.</b> Acredito el cumplimiento de las obligaciones establecidas en materia de autorizaciones de residencia y trabajo en su caso.
<b>ZAZPIGARRENA.</b> Bete egiten ditut salmenta ibiltariaren objektu diren produktuak saltzeko kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudi erregulatuazaleetan eskatzen diren baldintzak.	<b>SÉPTIMO.</b> Reúno las condiciones exigidas por la normativa reguladora aplicable en cada caso para la venta del producto o productos objeto de la venta ambulante.
<b>ZORTZIGARRENA.</b> Indarrean daukat jardueraren arriskuak barne hartzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia.	<b>OCTAVO.</b> Poseo un seguro de responsabilidad civil en vigor que cubra los riesgos de la actividad.
<b>BEDERATZIGARRENA.</b> Adierazi egiten dut bete egiten ditudala lege aplikagarrietan saldu nahi ditudan produktuak saltzeko xedatuak dauden baldintza higieniko-sanitarioak, eta konpromisoa hartzen dut baldintza horiek betetzen ditudala egiaztatzen duten agiriak aurkezteko Laudio Udalak eskatzen didanean. Halaber, Udalar jakinaraziko diot dagoeneko aurkeztu diren dokumentuei egin lekiekeen aldaketa oro.	<b>NOVENO.</b> Declaro que cumplo con los requisitos higiénico-sanitarios exigidos por la legislación aplicable para la venta de los productos que solicito y que me comprometo a aportar los documentos acreditativos del cumplimiento de dichos requisitos en el momento en el que así se me solicite por el Ayuntamiento. Asimismo, me comprometo a comunicar al Ayuntamiento cualquier modificación que acontezca en relación a los que ya hayan sido aportados.
<b>HAMARGARRENA.</b> Salpostuaren eskaera izenpetuta, esanbidez adierazten dut arestian adierazitako gutzia bete egiten dudala.	<b>DÉCIMO.</b> Que al firmar la solicitud de puesto de venta declaro expresamente cumplir con todo lo anteriormente indicado.

Data / Fecha

Izenpea / Firma

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

**F. BAIMENA / CONSENTIMIENTO**

<p>Dokumentu hau sinatzeak baimena ematen dio Laudioko Udalari eskura dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez espediente hau izapidetze aldera beharrezkoak diren eta administrazioen esku dauden behar-beharrezko datuak egiaztatu eta kontsultatzeko (Laudion salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren 8. artikulua, 2021eko martxoaren 31ko ALHAO, 36. zk.), salbu eta berariaz horren aurka egiten baduzu.</p> <p>AURKA EGONEZ GERO, DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DA. EGIAZTAPENAREN AURKA BAZAUDE, MARKATU X BATEZ LAUKI HAU:</p> <p><input type="checkbox"/> Aurka nago</p>	<p>La firma del presente documento autoriza al Ayuntamiento de Llodio, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a realizar las comprobaciones y consultas estrictamente necesarias de los datos que obren en poder de cualquier Administración y que resulten precisos para la tramitación del presente expediente, (Artículo 8 de la ordenanza reguladora de la venta ambulante de Llodio BOTHA nº36 de fecha 31-03-2021), salvo que usted se oponga expresamente.</p> <p>EN EL CASO DE OPOSICIÓN DEBERÁ APORTARSE LA DOCUMENTACIÓN CORRESPONDIENTE. SI USTED SE OPONE A DICHA COMPROBACIÓN MARQUE CON UNA X EN EL SIGUIENTE RECUADRO</p> <p><input type="checkbox"/> Me opongo</p>
--	---

**IZAERA PERTSONALEKO DATUEN  
BABESA****PROTECCIÓN DE DATOS DE  
CARACTER PERSONAL**

<p>Laudioko Udalak datuak tratatzen ditu herritarren eskabideen harrerari buruzko espedienteen kudeaketa bideratzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legearen arabera eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearekin bat. Zure datu pertsonalak gai horietan eskumenak dituzten beste administrazio publiko batzuei bidali ahalko zaizkie. Zure eskubideak erabiltzeko, <a href="mailto:dpd_dbo@ludio.eus">dpd_dbo@ludio.eus</a> helbidera idatz dezakezu, eta informazio gehiago nahi izanez gero, Laudioko Gardentasun Atarian aurki dezakezu, <a href="http://www.laudio.eus">www.laudio.eus</a> webgunean.</p>	<p>El Ayuntamiento de Ludio trata datos en el ámbito de la gestión de expedientes relativos a atención de solicitudes de la ciudadanía de acuerdo con la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local y Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Los datos personales podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas con competencia en la materia. Puede ejercer sus derechos ante <a href="mailto:dpd_dbo@ludio.eus">dpd_dbo@ludio.eus</a>, y ampliar información en el portal de transparencia <a href="http://www.laudio.eus">www.laudio.eus</a></p>
--	--

**Data / Fecha****Izenpea / Firma**

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P0103800I

II. ERANSKINA  
ANEXO II

**ELIKADURA-PRODUKTUAK SALTZEKO ESKAERA**

SOLICITUD DE VENTA DE PRODUCTOS DE ALIMENTACIÓN

**Fruta, barazkia eta ortuari freskoak** / Frutas, verduras y hortalizas frescas

**Barazki-kontserbak** / Conservas vegetales

**Onddo eta perretxiko jangarriak** / Hongos y setas comestibles

**Landareak, belar aromatikoak, infusioak eta espeziak** / Plantas, hierbas aromáticas, infusiones y especias.

**Eztia eta erlezaintza-produktuak** / Miel y productos apícolas

**Arrautzak** / Huevos

**Esnea eta esnekiak** / Leche y derivados lácteos (*Aukeratu saldu nahi dituzunak / Señale cuantos desee vender*)

- Esne pasteurizatua** / Leche pasteurizada
- Jogurtak, putxak edo gatzatuak, kefirra** / Yogures, cuajadas, kéfir
- Gazta fresko eta erdionduak** / Quesos frescos y semicurados
- Gurina, esnegaina, gaztanbera** / Mantequilla, nata o requesón
- Gutxienez 60 egunez ondutako gaztak** / Quesos con periodo de curación mínimo de 60 días
- Beste batzuk**

**Okela eta okelaren eratorriak** / Carne y derivados cárnicos

**Arrantzatuko produktuak: kontserbak, erdikontserbak eta gazituak** / Productos pesqueros: Conservas, semiconservas y salazones

**Ogia eta ogi berezia** / Pan y panes especiales

**Pastelgintza, gozogintza eta opilgintza** / Pastelería, confitería, bollería y repostería

**Fruitu lehorrak** / Frutos secos

**Olibak eta ozpinetakoak** / Aceitunas y encurtidos

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P0103800I

**Beste batzuk / Otros (*Adierazi zeintzuk / Especifique cuales*)**

**\*Gazta eta ontziratuta doazen produktuen etiketaren argazkia bidali behar izango da eskaerarekin batera.** / Deberá adjuntarse a la solicitud fotografía de la etiqueta de todo producto envasado y quesos.

**KALITATE BEREIZGARRIA DUTEN ELIKAGAIAK / ALIMENTOS DE CALIDAD DIFERENCIADA**

**Nire produktuek bereizgarri ziurtatu hauek dituzte / Mis productos disponen de los siguientes distintivos certificados:**

- Jatorri-izendapen babestua (JIB)**  
Denominación de origen protegida (DOP)
- Adierazpen geografiko babestua (AGB)**  
Indicación geográfica protegida (IGP)
- Berezitasun tradizional bermatua (BTB) / Especialidad tradicional garantizada (ETG)**
- Berme-marka / Marca de garantía**
- Ekologikoki ekoiztutako elikagaiak / Alimentos de producción ecológica**

**Adierazi zeintzuk / Nombra cuáles son:**

EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA/ ÁREA DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
GIZARTE EKONOMIA ETA LEHEN SEKTOREA / ECONOMÍA SOCIAL Y PRIMER SECTOR  
LEHEN SEKTOREA/ PRIMER SECTOR  
Tlnoa.: 944 034 980 E-posta : [garapenagentzia@ludio.eus](mailto:garapenagentzia@ludio.eus)